

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

Enplegu publikoaren 2018ko eskaintza

Bo180508A. Administrazio honek onartu egin du bete gabe dauden eta ondoren azaltzen diren lanpostuetarako enplegu publikoaren eskaintza, 2018ko ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorrari dagokiona. Hori guztia, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 91. artikuluan, apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, langile publikoaren oinarritzko estatutuaren testu bateratuarenak, 70. artikuluan eta uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, 24. artikuluan xedatutakoa betetzeko. Erreferentzia alfanumerikoa: PresuGen2018OPE.

1. Lanpostua: LBOBACSEE161XX1. zerbitzu askotarako ofizialea; egoera: aktiboan, lan-kontratudun finkoa; titulazioa: seigarren xedapen gehigarriari aipamen egiten dioten profesionalen elkargoak. EPOE; eta B gidabaimena. Hizkuntza eskakizuna: 1 (derrigortasun datarik gabe).

2. Lanpostua: LBOBACSEE161XX2. Zerbitzu askotarako ofizialea; egoera: aktiboan, lan-kontratudun finkoa; titulazioa: seigarren xedapen gehigarriari aipamen egiten dioten profesionalen elkargoak. EPOE; eta B gidabaimena. Hizkuntza eskakizuna: 1 (derrigortasun datarik gabe).

Halaber, administrazio honek erabaki du onestea uztailaren 7ko 702/2017 Errege Dekretuak, enplegu publikoaren 2017rako eskaintza onesten duenak, 3. artikuluko 6., 7., 8., 9., 10., 11., 12. eta 17. paragrafoetan zehazten dituen hautaketa prozesuetan aplikatzeko diren irizpideak; bai eta iragarki hau ALHAOn eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea ere.

Oion, 2018ko maiatzaren 8a

Alkatea

EDUARDOTERROBA